



Armeniaren eta Azerbaijanen arteko liskar armatuak irailaren 27an hasi ziren Karabakh Garaiko kontaktu lerroan. Berehala, bando bakoitzak bere hildako militarren eta zibilen berri eman zuen. Lehen erasoen ondorioz, Armeniak eta Artsakh Errepublikak lege martziala eta mobilizazio osoa ezarri zituzten. Azerbaijanek, berriz, lege martziala eta etxeratze-agindua. Irailaren 28an, Azerbaijanen mobilizazio partzialera deitu zen.

Zein da, kasu honetan, erantzulea? Erantzun zaila du galderak, guda gutzie-

tan bezala informazio kontrajarriek eta propagandak estaltzen baitute guztia. Armeniaren esanetan, Azerbaijanek hasi zuen eraso, hainbat hilabete lehenago planifikatutako operazio baten emaitza dela dio. Azerbaijanen arabera, Armenia da gatazka lehertzearen erantzulea. Haien esanetan, Armeniak aurretik ere askotan urratu baitu su etena.

Hainbat herrialdek eta Nazio Batuen Erakundeak hasieratik gaitzetsi dute gatazkaren areagotzea eta negoziazioetara itzultzeko deia egin dute. Beste herrialde batzuk, aldiz, argi agertu dira alde jakin baten alde. Afganistan, Pakistan

eta Turkia, adibidez, Azerbaijanekin le-
rrokatu dira.

Aipagarria da Turkiaren rola, Azerbaijanian babes politiko osoa adierazteaz gain laguntza militar handia eman dio eta. Gainera, zenbait iturriren arabera, Turkiak Sirian al-Assaden aurka erabili dituen mertzenarioak sartu ditu Azerbaijanen.

Interbentzioa Erdoganaren menpeko Turkia oldarkorraren sintomatizat interpreta daiteke. Siriatik indartuta irten da Erdogan, Libian eta Mediterraneo Itsasoan eskua sartu du eta presio mekanismoak ezarri ditu. Azken batean, Turkiak

KARABAKH GARAIA

Lehertu da berriro Armenia eta Azerbaijanen arteko guda zaharra

Iraila amaieran berriz ere infernuko atea ireki dira Karabakh Garaian. Azerbaijango eta Artsakh Errepublikako indar armatuen (Armeniaren laguntzarekin) arteko talka bi bandoetako hildako kopurua puzten ari da egunetik egunera. Gatazkaren iturburua ez da atzo goizekoa eta geopolitikaren xake taulak pisu handia du.

 OIER ZEBERIO

nazioarteko politikan bere posizioa indartu nahi du.

Gatazka armatua lehertu bezain pronto, garbi ikusi zen bi aldeak beren helburuak betetzeko eginbeharreko guztia egiteko prest zirela. “Guk aurrera jarraituko dugu, iritsi behar dugun lekuraino iritsiko gara”, zioten gaztaka lehertu eta pare bat Azerbaijandik. Armeniarren kasuan ere, garbi geratu zen, kosta ahala kosta, lurraldea defendatzeko asmo irmoa zutela.

Ikuspuntu militarretik, Azerbaijan Armenia baino indartsuagoa da gaur egun. Armeniak, ordea, indar armatu profesio-

nalak edukitzeaz gain, Karabakh Garaiko orografia eta borroka sentimentua (desagerpenarekin loturikoa) ditu aldeko. Edonola ere, horrelakoetan herritarrak izaten dira lehen biktima eta honezkero bi bandoetan ehunka zenbatzen dira hildakoak, iturri ofizialen arabera.

Gatazkaren lehen lerroan kazetarien presentzia oso urria denez, zaila da zehaztea modu fidagarrian zer aurrerapen egin diren. Urriaren erdialdean, iturri batzuen esanetan, bi bandoak ez aurrera ez atzera geratu dira, nahiz eta Azerbaijaneke lurralde zatiak eta zenbait herri txiki berreskuratzea lortu.

Zibilen aurkako erasoak bi aldeek abiatu dituzte, zenbait herri eta hiriri airez eraso eginez. Adibidez, Artsakh Errepublikako hiriburu Stepanakert irailaren 27tik aurrera etengabe bonbardatu dute. Kalteak geroz eta nabaria goak dira hirian. Bestetik, urriaren 11n, armeniarrek Ganja hiri azerbaijandarra bonbardatu zuten. Bi kasu hauek askoz ere zabalagoa den bonba bidezko erasoaldien adibideak baino ez dira.

Urriaren 14ra arte argitaratu diren datuen arabera, Karabakh Garaiko biztanleriaren erdiak, 70.000 eta 75.000 pertsonaren artean, etxebizitza atzean utzi

behar izan du. Bi aldeetako datuak kon-tuan harturik, 80 bat zibil hil dituzte eta ehunka zauritu. Baina foku mediatikotik aparte geratzen diren gudetan, zifra al-tuagoa izan ohi da.

GATAZKAREN ERRO HISTORIKO, POLITIKO ETA SOZIALA

Gaur egungo gatazka militarra zergatik heldu diren ulertzeko, gogora ekarriko dugu zeinbat une historiko, politiko eta sozial garrantzitsu. Hasteko, genozidio armeniarra eta Otomandar Inperioaren gainbehera.

Armeniaren eta Azerbaijanen arteko etsaitasuna azaltzen duen gertaera nagusienetako bat I. Mundu Gerraren testuinguruan eginiko "genozidio armeniarra" da, 1915 eta 1923 bitartean Otomandar Inperioaren parte zela. 800.000 armeniarrek baina gehiagok galdu zuten bizitza kultura armeniarra desagerrazteko asmoz egindako sarraski horretan. Adituen arabera, lehen genozidio modernotzat har liteke.

Aritz Saidi Olaortua nazioarteko analistaren arabera, otomandarrek haiena

ez zen fedearen zaleak eta etnikoki ezberdinak ziren pertsonak deuseztatu zituzten. "Horretarako turkiarrek, mertzenario gisa, beste batzuen artean, azeriak erabili zituzten", dio Saidik.

Sarraskiak gaur egun ere indar handia duen trauma nazionala eragin zuen Armenian. Populazio armeniarra ia ezabatzea lortu zuten turkiarrek, eta ondorioz, gaur egun ere mesfidantza eta gorroto handia nagusi dira turkiarrekiko eta azeriekiko.

SOBIETAR BATASUNA LURRALDEEN JABE

Otomandar Inperioaren gainbeherak (1923an desagertu zen) Sobietar Batasunaren indartze prozesuarekin egin zuen topo 1920. hamarkadan. Gizarte kapitalisten aurrean bestelako antolaketa eta iruditeria ekarri zituen Lenin buru zuen Errusiako Iraultzak 1917an, eta hortik aurrera, blokeen arteko talka gertatzen hasi zen. Armeniarrak eta azeriak alde sobietarraren barruan lotu ziren.

Gaur egun Artsakh Errepublikako Errepublikako gisa ezagutzen dena, sobietarrek Azerbaijan barnean sartu zuten eskualde auton-

ZONALDEKO EGOERA AZKEN OFENTSIBAREN AURRETIK

Artsakh Errepublika Kaukaso hegoaldean dago, Armenia eta Azerbaijanen artean. Ez du nazioarteko aitortzarik, baina Karabakh Garaia lurraldearen gehiengo kontrolatzen du. Stepanakert da hiriburua.

Historikoki, gehiengo armeniarra izan du (kristauak) zonalde honek, nahiz eta azerien (musulman xiitak) bizileku ere izan den. Nazioarteko harremanei dagokienez, Azerbaijanek harreman historiko eta politiko estuak ditu Turkiarekin. Bestalde, Armeniak lotura indartsuak ditu Errusiar Federazioarekin. Zehazki, Errusiak 102. base militarra du Erevanen, Armeniako hiriburutik 120 kilometro iparraldera, eta defentsa akordioa dute sinatua.





Turkian bizi diren azerbaijandarrak Istanbulen, Turkiako eta Azerbaijango banderak eskutan, 2020ko uztailaren 19an.

REUTERS PHOTO

mo gisa 1923an, gehiengoa historikoki armeniarra izan arren. Zergatik hartu zuen Moskuk erabaki hau? Saidiren arabera, "Otomandar Inperioari eginiko keinua izan zen. Turkia berria Sobietar Batasunaren inguruan geratzeko saiakera zen".

Sobietar Batasunaren barruan elkarbizitza indartu eta bi komunitateen arteko elkarbizitza sustatzeko lan garrantzitsua egin zen. Saidiren iritziz, "nortasun sobietarra ezarri zen eta ezaugarri abertzale propioak, neurri batean, alde batera utzi ziren. Bakoitzaren berezitasunak mantendu ziren, baina nortasun goren hau indartzean tentsioak mugatu ziren".

SESB-REN DESEGITEA: TENTTSIO ETNIKOEN GORAKADA ETA GERRA

1980ko hamarkadaren amaieran, SESB-ren ahultze eta irekitze prozesuarekin loturik, armeniarren eta azerien arteko tentsio etnikoak nabarmen areagotu ziren. Karabakheko armeniarrek "gunea azerifikatzeko" saiakerak salatu zituzten, eta tentsio etnikoek bultzaturiko hilketen eraginez, independentziaren aldeko sentimendua indartu zen.

Zentzu honetan azpimarratzekoa da 1988ko otsailaren 27an Sumgait hiri azerbaijandarretik (Baku hiriburutik 25 kilometrorra iparraldean) armeniarren aurka egin zuten eraso. Sobietarren arabera, 32 armeniar hil ziren ehiza saio hartan, nahiz eta egiazko kopurua altuagoa izan daitekeen. Gertaera honek, eta bereziki bortizkeria mailak, armeniarren artean beldurra areagotu zuen.

Erantzun gisa, Karabakh Garaiko Gobernua galdeketa deitu zuen 1991n. Baietak irabazi zuen, eta erregioak 1992ko urtarrilaren 6an independentzia

aldarrikatu zuen. Honek, jakina, gatazka areagotu zuen, eskala handiko gerra bihurtu arte. 1994an, Errusiaren bitartekotasunari esker, su-etena sinatu arte.

Aritz Saidiren esanetan, "gerra horretan, Artsakh, Azerbaijan barruko uharte gisa ulertu behar dugu. Hasiera batean, ez zegoen inongo komunikazio fisikorik lurralde horren eta Armeniaren artean. Baina garaipen militarren eraginez, armeniarrek zubi geografikoa eratu zuten Artsakh eta Armeniaren artean".

ABERTZALETASUNA: GATAZKA INDARTZEN DUEN FAKTOREA

Azerbaijanen bizi den azeri askok, gehienak ez esateagatik, Turkia anai gisa ikusten du. Bi estatutan banatutako nazio bakarraz hitz egiten dute. Bestetik, 1990eko hamarkadako gudan izandako porrotengatik, azeri asko minduta dago, Azerbaijanen tamainaren herena den herrialde batek garaitu zituen eta.

Armeniaren kasuan, abertzaletasuna genozidioarekin dago lotuta. Historikoki, edozein eraso, hil ala biziko gai gisa hartu izan dute. Judutarren antzeko kasua da. Bestetik, Eliza kristauak izugarriko boterea du, eta sentimendu nazionalaren transmisio prozesuan berebiziko garrantzia du.

Orain arteko guda modernoan artean 30.000 pertsona inguruk galduta dute bizitza gatazka honetan. Gainera, guztira milioi bat pertsonak utzi behar izan dute bizilekua. Armeniarrek Karabakh Garaia kontrolatzea eta lurraldea eta Armenia batzen dituen espazioa bereganatzea lortu zuten.

Artsakh inguruko zubi geografikoa eraikitzean, azerien nahitazeko lekualdatzeak agindu ziren. "Azerien aurkako garbiketa etnikoak izan ziren, zalantzarik gabe", dio Saidik. Bestalde, Saidik ez du zalantzarik "genozidio txikiak" bi aldetan egin zituztela baieztatzen.

Armeniaren garaipenaren ostean, ordea, munduko estatu gehienak Azerbaijanen alde lerrotatu ziren, haren lurraldearen osotasuna babesten zutela argudiatuta. Zentzu honetan, Abjasia, Hego Osetiak eta Transnistriak bakarrak onartu dute Artsakh Errepublikaren estatusa, guztiak ere independentzia aldarrikatu eta babesik gabe geratu diren herriak.

Honez gain, Nazio Batuetako Seguratasun Kontseiluak, lau erresoluzioaren bidez (822, 853, 874 eta 884), Azerbaijanen aldarrikapenei arrazoia eman die. Azpimarratzekoa da Errusiar Federazioak arrazoia Azerbaijani ematea. Horrek, izugarriko eragina du gaur egungo egoeran. Errusiar Federazioak Artsakh Errepublika Azerbaijan dela onartzen duenez, interbentzio militarren bat gertatzeko aukerak nabarmen jaisten dira.

1994an su-etena sinatu arren, hurrengo urteetan hildakoak eragin zituzten hainbat guda txiki izan ziren, ordea. Zentzu honetan, Saidiren esanetan, ohikoa ziren hildako soldaduen gorpuak edo artilleria eraso txikiak ikustea.

2016KO GERRA ETA ONDORENGO EGOERA

2016ko apirilaren 1 eta 5 bitartean, Karabakh Garaiko eta Azerbaijango indar armatuen arteko talka izan zen; 1994tik okerrenak. AEBetako Estatu Departamentuaren arabera, guztira 350 pertsona hil ziren lau eguneko gudan. Iritzi batzuen arabera, kasu honetan ere, garai-leak armeniarrek izan ziren.

Une honetatik aurrera, estrategia militarra aldatzeaz gain, gastu militarra handitu zuen Azerbaijanek. Herrialde hori izan zen drone israeldarrak erosten aurrenetariko, adibidez. Gaur egungo gerran eragin handia izaten ari diren gidaririk gabeko hegazkin hauek abantaila militar nabarmena ematen diote Azerbaijani zenbait kasutan. ●